


EKINTZAILETZAN ETA BERRIKUNTZAN INBERTITZEKO ZERGA PIZGARRIEN GIDA

bertsio osoa

Eguneratua: 2021eko maiatza

 **Bizkaia**
crowdfunding





Gida honek, lurralde komuneko araudian, eta Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako araudietan aurreikusitakoaren arabera, ekintzailetzan eta berrikuntzan inbertitzeko zerga-pizgarriak jasotzen ditu.



AURKIBIDEA




01

Zergatik inbertitu ekintzailtzan eta berrikuntzan?



Zerga pizgarriak inbertitzailea pertsona fisikoa bada (PFEZ)

- 2.1** Kenkariak enpresa berrietan edo berriki sortutakoetan inbertitzeagatik.
- 2.2** Kenkariak hazkunde-aukera handia duten erakundeak finantzatzegatik.
- 2.3** COVID pizgarriak: inbertsioagatikoko kenkari berezia.



Zerga pizgarriak inbertitzaile pribatuarentzat - pertsona juridikoa

- 3.1** Salbuespena enpresetako partaidetzak eskualdatzean.
- 3.2** Partaidetza-maileguetatik eratorritako interesen gaineko salbuespena.
- 3.3** COVID pizgarriak: inbertsioagatikoko aparteko kenkaria.
- 3.4** Ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera indartzeko erreserba: Partaidetzak eskuratzea.
- 3.5** Berariazko kenkaria I+G+b finantzatzegatik.

04


Azken gomendioak


01

ZERGATIK INBERTITU EKINTZAILETZAN ETA BERRIKUNTZAN?

Administrazioak sinisturik daude ideia berritzaileak gauzatzea funtsezkoa dela gizarteak, oro har, aurrera egiteko; hortaz, zer hoberik ekintzailetza-ekosistema sustatzeko, ahaleginak herritarrekin partekatzea baino?

Paradigma horrenpean, zergek oso onura interesgarriak dakarzkiete ekintzaileen proiektuak babesten aurrezkiak inbertitzea erabakitzen dutenei.





Inguruabar horietan, pertsonak bi aukera dituzte: aurrezkiak partikular moduan inbertitu, kontuan izanik horrek **Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan (PFEZ)** eragingo duela; bitarteko sozietario edo enpresarial baten bidez taldean inbertitu, kontuan izanik horrek **Sozietateen gaineko Zergan** (aurrerantzean Sozietateen Zerga) eragingo duela.

Hurrengo koadroan herritarrek aipatu ditugun arloetan dituzten zerga-pizgarri erakargarrienak jaso ditugu laburbildurik, zergapetzen dituen administrazioaren araudiaren arabera: Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Nafarroa edo gainerako autonomia-erkidegoak (Iurralde komuna).



NORBANAKO GISA
(pertsona fisikoa)



PFEZ

INBERTITZAILEA, PERTSONA FISIKOA - PFEZ

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Estatua	Nafarroa
Kenkariak mikroenpresetan, enpresa txiki edo ertain berrietan edo berriki sortutakoetan edo enpresa berritzaileetan inbertitzeagatik.		Kenkaria enpresa sortu berrietan edo berriki sortutakoetan inbertitzeagatik.	Kenkaria enpresa sortu berrietan edo berriki sortutakoetan inbertitzeagatik.	-
		Kenkariak hazkunde-aukera handia duten erakundeak finantzatzegatik.		
Inbertsioagatiko Kenkari Berezia.				



SOZietate Bidez
(pertsona juridikoa)



SOZietateen ZERGA
SZ

INBERTITZAILEA, PERTSONA JURIDIKOA - Sozietateen Zerga

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Estatua	Nafarroa
Partaidetzak besterentzea.				
Partaidetza-maileguak.				-
Ekintzailetza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera indartzeko erreserba.			-	-
Hirugarren batzuek egindako I+G+b jarduera finantzatzea.			-	Hirugarren batzuek egindako I+G+b jarduera finantzatzea.
Inbertsioagatiko Kenkari Berezia.				-

02


INBERTITZAILEARENTZAKO PIZGARRI FISKALAK

PERTSONA FISIKOA - PFEZ



Startup-etan eta enpresa berritzaileetan inbertitzeak zuzeneko kenkariak ekar ditzake inbertitzaileak ordaindu beharreko PFEZ kuotan. Alegia, PFEZ kontzeptuan sortutako zorraren kopuru bat deskontatzeko eskubidea da, zergadunari dagokiona. Nolanahi ere, lurraldeen artean dauden desberdintasunak esanguratsuak dira.

PERTSONA
FISIKOA - PFEZ



Oso garrantzitsua da adieraztea jarraian azalduko ditugun zerga-pizgarriak zergadunak aplikatu ahal izango dituela, bere PFEZean aplikatu behar duen araudiaren arabera.

Hau da, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudiaren mende dagoen sozietate batean inbertsioak egiten dituen zergadun pertsona fisiko batek, **zergadun horrek PFEZn aplikatzen duen araudiaren arabera, zerga-onura hauetako batzuk edo besteak aplikatu ahal izango ditu.**

Hori esanda, zer neurri izan daitezke erakargarriak proiektu ekintzaileak finantzatzera dirua bideratzen duen inbertitzaileentzat?

2.1

**KENKARIA ENPRESA
BERRIETAN EDO BERRIKI
SORTUTAKOETAN
INBERTITZEAGATIK**

INBERTITZAILEARENTZAKO
PIZGARRI FISKALAK

**PERTSONA
FISIKOA - PFEZ**



2.1 KENKARIA ENPRESA BERRIETAN EDO BERRIKI SORTUTAKOETAN INBERTITZEAGATIK



Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako PFEZren foru-araudietan eta **lurralde komuneko** PFEZren legean ezarritakoaren arabera, Startup batean inbertitzeak (hori eratzeko unean edo hurrengo urteetan) zuzeneko kenkariak ekar ditzake inbertitzaileak ordaindu beharreko PFEZ kuotan.



Baina pizgarri hau ezberdina da inbertitzailearen autonomia erkidegoaren arabera.

KENKARIAREN KONFIGURAZIOA



KENKARIA (%)

» Araba eta Bizkaia:

- %10 mikroenpresa edo ETE berrietan edo berriki sortutakoetan akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik.
Kenkariaren gehieneko oinarria: 100.000 euro urtean, eta enpresa berrietan edo berriki sortutakoetan harpidetutako akzioen edo partaidetzen erosketabaliok osatuko du.
- %20 mikroenpresa edo ETE berritzaileetan akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik.
Kenkariaren gehieneko oinarria: 150.000 euro urtean.

- » **Gipuzkoa:** %20 enpresa berrietan edo berriki sortutakoetan akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik.
Kenkariaren gehieneko oinarria: 50.000 euro urtean.
- » **Lurralde komuna:** %30 enpresa berrietan edo berriki sortutakoetan akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik.
Kenkariaren gehieneko oinarria: 60.000 euro urtean.

URTEAN KENKARIAK IZANGO DUEN GEHIENEKO MUGA

- » **Araba eta Bizkaia:** zergaren likidazio-oinarriaren %15.
- » **Gipuzkoa:** zergaren likidazio-oinarriaren %10.
- » **Lurralde komuna:** mugarik gabe.

** Aipatutako muga gainditzeagatik kenkaririk izan ez duten kopuruak aplikatu ahal izango dira (mugak errespetatuz) hurrengo eta segidako bost urteetan amaituko diren zergaldietako auto-likidazioetan.*



2.1 ADIBIDEA (Bizkaiko egoiliarra):

Demagun sozietate bat eratzeko unean 80.000 euroko ekarpena egiten zaiola sozietate horren kapitalari; ekarpena egin duenak berak ordaindu beharreko zergaren gaineko 8.000 euroko kenkaria, gehienez, izan dezake. %10eko kenkaria aplikatu ahal izateko, zergaren likidazio-oinarria (LO) ez da 53.334 eurotik beherakoa izango.

LO txikiagoa bada (40.000 euro, kasurako), ezin izango du kenkaria osotasunean aplikatu %15eko muga aplikatzeagatik; zergaldian 6.000 euroko kenkaria baino ezin da egin. Mugaren gaineko soberakina hurrengo zergaldietan aplikatu ahal izango da.

2.1

KENKARIA ENPRESA BERRIETAN EDO BERRIKI SORTUTAKOETAN INBERTITZEAGATIK

INBERTITZAILEAREN BETEKIZUNAK

LOTURARIK EZA

Sozietateetan izango duen zuzeneko edo zeharkako partaidetzak, ezkontide, izatezko bikotekide eta 2. mailako ahaideekin ere izan dezakeena kontuan hartuta ezin du, parte hartzeko urteetako egun bakar batean ere, gainditu:

- » Araba eta Bizkaia: %25.
- » Gipuzkoa eta lurralde komuna: %40.

GIPUZKOA

Zergadunak, parte hartzeko urteetako egun bakar batean ere, ezin dezake kenkaria sortzen duen jarduerarekiko bestelako ordainpeko harremanik eduki (lanekoa nahiz merkataritzakoa) partaidetzako erakundearekin.

Salbuespen dira mailegu-kontratuetatik eratorritakoa eta kontseilari edo administratzaile batek berezkoa duena, betiere hori lan-harreman baten bidez gauzatzen ez bada.

INBERTSIOAREN BETEKIZUNAK

ESKURATZEKO UNEA

Akzioak edo partaidetzak erakundea sortzeko unean eskuratuko dira, kapital-zabalkuntza bidez:

Araba eta Bizkaia:

- a) Inbertsioa mikroenpresa edo ETE sortu berrietan edo berriki sortutakoetan: eratu eta hurrengo 5 urteetan.
- b) Inbertsioa mikroenpresa edo ETE berritzaileetan: eratu eta hurrengo 7 urteetan. Epe hori ez da eskatuko baldin eta erakundeak arrisku-finantzaketako hasierako inbertsio bat behar badu, merkatu geografiko edo produktuen merkatu berri batean sartzeari begira negozio-plan bat eginda, hasierako inbertsio hori aurreko 5 urteetako urteko eragiketen bolumenaren batez bestekoaren %50etik gora denean.

Gipuzkoa: eratu eta hurrengo **5 urteetan**.

Lurralde komuna: eratu eta hurrengo **3 urteetan**.


ADI: INBERTSIOARI EUTSI BEHAR ZAIO

- » Araba eta Bizkaia: 5 urtetik gorako epean.
- » Gipuzkoa eta lurralde komuna: 3 urtetik gorako eta 12 urtetik beherako epean.

2.1

KENKARIA ENPRESA BERRIETAN EDO BERRIKI SORTUTAKOETAN INBERTITZEAGATIK

INBERTSIOA JASOKO DUEN ENPRESAREN BETEKIZUNAK



- » Merkataritza-izaera SA (sozietate anonimoa), SL (sozietate mugatua), SAL (lan-sozietate anonimoa) edo SLL (erantzukizun mugatuko lan-sozietatea) izango da.
- » Egoitza soziala eta fiskala Espainian egotea.
- » Ekonomia-jarduera gauzatzea; hau da, ez izatea inbertsio-tresna hutsa, eta ez izatea ondare-sozietatea.
- » Kotizatu gabeko sozietatea izatea.

ARABA ETA BIZKAIA

Mikroenpresa edo ETE izaera betetzea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araubideko (SZFA) 13. artikulua arabera:

- » Aktiboa ez izatea 43 milioi eurotik gorakoa edo, bestela, eragiketa bolumena, ez izatea 50 miloi eurotik gorakoa.
- » Batez beste, plantillan 250 pertsona baino gutxiago edukitzea.
- » Lehen adierazitako betekizunetako bat betetzen ez duen beste enpresa batek haren gaineko %25etik gorako partaidetzarik ez edukitzea -ez zuzenean, ez zeharka.

GIPUZKOA ETA LURRALDE KOMUNA

Erakundearen funts propioen zifraren zenbatekoa ez da 400.000 €-tik gorakoa izango zergadunak akzioak edo partaidetzak eskuratu dituen erakundearen zergaldiaren hasieran.

- » Kenkaria egiteko, zergadunak **ziurtagiri** bat lortu beharko du, akzioak edo partaidetzak saldu dizkion erakundeak emana; ziurtagiri horretan, lehen aipatutako betekizunak akzioak edo partaidetzak erosi ziren zergaldian betetzen zirela adieraziko da.

Araba eta Bizkaian, mikroenpresa edo ETE berritzaileen kasuan, Europar Batasunaren Erregelamenduaren arabera berritzaile kalifikatzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten aditu independenteen agiria aurkeztu beharko dute.

EZ BETETZEA



Aipatutako betekizunak ez betetzeak berarekin ekarriko du egindako kenkaria itzultzea, horri dagozkion berandutze-intereseekin.

2.1 KENKARIA ENPRESA BERRIETAN EDO BERRIKI SORTUTAKOETAN INBERTITZEAGATIK

2.1 / LABURPENA

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Lurralde komuna
Kenkaria (%)	Inbertsioaren %10. Erakunde berritzaileetan inbertsioaren %20.		Inbertsioaren %20.	
Kenkariaren gehieneko oinarria	100.000 euro (urteko). 150.000 euro (urteko) enpresa berritzaileetan.		50.000 euro (urteko).	60.000 euro (urteko).
Muga: urtean gehienez egin daitekeen kenkaria	Likidazio-oinarriaren %15.		Likidazio-oinarriaren %10.	
Inbertsioa mantentzea	Gutxienez 5 urte mantenduko da.		3-12 urte.	
Inbertitzean enpresak edukiko duen adina (gehienez)	5 urte. 7 urte enpresa berritzaileetan.		5 urte.	3 urte.

2.1 KENKARIA ENPRESA BERRIETAN EDO BERRIKI SORTUTAKOETAN INBERTITZEAGATIK

KENKARIARI LOTURIKO BESTELAKO ZERGA-ONURAK

IRABAZI SALBUETSIA PFEZN

Zergadunak erakundeetan erositako akzioak edo partaidetzak (eskuratze horretan kenkariak aplikatu ondoren) saldu eta irabazia sortzen bada:

- » **Araba eta Bizkaia:** irabazi hori salbuetsita egongo da baldin eta inbertsioak sei eta hamar urte bitarteko iraunaldia izan badu, eta salbuetsita egongo da %50ean salmenta hamaikagarren eta hamabosgarren urte bitartean egiten bada.
- » **Lurralde komuna:** irabazi hori %100ean salbuetsita egongo da lortutako zenbatekoa berriro inbertitzen bada kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen duten akzioak edo partaidetzak eskuratzen. Zergadunak salbuespena aplikatzea erabakitzen duenean, eskuratutako akzio edo partaidetza berriengatik kenkariaren oinarria eskualdatzean lortutako guztizko zenbatekoa gainditzen duen zatira mugatuko da.

Araba eta Bizkaia: zergadunak PFEZn kenkaria aplikatu duen entitateetako akzioak **Ondarearen gaineko Zergatik salbuetsita** egongo dira, horiek erosi zirenetik 15 urte baino gehiago igaro ez badira.



2.1 / 1. ADIBIDEA

Aitor, ingeniaria eta egoitza fiskala Bizkaian duenak 80.000 €-ko likidazio-oinarria du PFEZn. Bere lagunak eraturako ETE sortu berri batean 100.000 €-ko inbertsioa egitea erabaki du (%10eko kenkaria). Nola eragingo dio erabaki horrek bere PFEZri?.

	PFEZ inbertsiorik gabe	PFEZ inbertsioarekin
Inbertsioa	-	100.000€
Inbertitzailearen laneko errenta (LO)	80.000€	80.000€
Zerga-arintze aurretiko PFEZ	27.115€	27.115€
Aurrezpena kenkariagatik	0€	-10.000€
Ordaindu beharreko PFEZ	27.115€	17.115€
Errenta garbia PFEZ ondoren	52.885€	62.885€

Proiektua arrakastatsua izan da, eta 6 urtera, inbertitzaile batek Aitorren partaidetzak erosi nahi ditu 300.000 €-an; hortaz, Aitorrek 200.000 €-ko irabazia lortuko du: zenbat ordaindu beharko du Aitorrek zergatan?.

Aitorrek **0 €** ordainduko ditu PFEZn, salbuetsita dagoelako. Alegia, **200.000 €-ko irabazia zergetatik libre legoke.**

2.1 KENKARIA ENPRESA BERRIETAN EDO BERRIKI SORTUTAKOETAN INBERTITZEAGATIK



2.1 / 2. ADIBIDEA

80.000 €-ko likidazio-oinarria duen Aitorrek beste lagun bat du, eta horrek proiektu berritzaile bat darama aurrera xede horretarako eratutako ETE baten bidez (%20ko kenkaria). Beste 100.000 € inbertitu ditu, oraingoan proiektu horretan.

Taulak inbertitzailearen PFEZ likidazioak erakusten ditu, egindako inbertsioagatiko kenkaria kontuan hartuta edo ez.

	PFEZ inbertsiorik gabe	PFEZ inbertsioarekin
Inbertsioa	-	100.000€
Inbertitzailearen laneko errentak (LO)	80.000€	80.000€
Zerga-arintze aurretik ordaindu beharreko PFEZ	24.500€	24.500€
Aurrezpena kenkariagatik	0€	-20.000€
Ordaindu beharreko PFEZ	24.500€	4.500€
Errenta garbia PFEZ ondoren	55.500€	75.500€

Era berean, hipotetikoki partaidetzak saltzeagatik lortutako irabaziek ez dute zerga-kosturik izango 6 eta 10 urte pasa bitarte, eta %50ean salbuetsita egongo dira hamaikagarren urtetik aurrera.

ARAUDIA KONTSULTATU



Araba:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauaren 90. artikulua.

Bizkaia:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 90. artikulua.

Gipuzkoa:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 89.bis artikulua.

Lurralde komuna:

Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergari buruzko 35/2006 Arauaren 68. artikulua.

2.2


KENKARIA HAZKUNDE-AUKERA HANDIA DUTEN ERAKUNDEAK FINANTZATZEAGATIK

INBERTITZAILEARENTZAKO
PIZGARRI FISKALAK

**PERTSONA
FISIKOA - PFEZ**



2.2 KENKARIA HAZKUNDE-AUKERA HANDIA DUTEN ERAKUNDEAK FINANTZATZEAGATIK



Gipuzkoan, hazkunde-aukera handia duten erakundeak finantzatzeko kenkaria ezartzen da.




Erakunde sortu berriak dira harpidetzaren aurreko zazpi urteetan eratutakoak.



Hazkunde-prozesuan dagoen erakundea da, geografia- edo produktu-merkatu berri batean sartzeko egindako negozio-plan batean oinarrituta, azken 5 urteetako urteko eragiketa-bolumenaren batez bestekoaren %50etik gorako hasierako finantzaketa-inbertsio arriskutsua behar duena.

Aldez aurretik administrazio-loturako prozedura bat sustatu beharko da, izaera hori aitortzeko.

KENKARIAREN KONFIGURAZIOA



KENKARIA (%)

%30, entitate berritzaile sortu berrietan lehen mailako merkatuko akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik.

Erakunde berritzaileak dira:

- Produktu, zerbitzu edo prozesu berriak edo nabarmen hobetuak garatuko dituztenak, teknologian edo industrian porrot egiteko arriskua dakartenak.
- Ikerketako, garapeneko eta berrikuntza teknologikoko jarduerak egitetik eratorritako gastuak eta inbertsioak gutxienez ustiapen-gastu guztien %10 badira, gutxienez aurreko 3 zergaldietako batean.

Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako erakunde ofizialak egindako txostenaren bidez egiaztatuko dira inguruabar horiek.

» %15, hazten ari diren entitateen akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik.

GEHIENEO KENKARI-OINARRIA BI KONTZEPTUENGATIK

1.000.000 euro urtean, eta harpidetutako akzioen edo partaidetzen erosketa-balioak osatuko du.

URTEAN KENKARIAK IZANGO DUEN GEHIENEO MUGA

Sortuko den urteko kuota likidoa ez da kuota osoaren %30etik beherakoa izango.

** Kenkari hori gainerako kenkarietako azken lekuan aplikatuko da, eta aipatutako muga gaitziteagatik kenkaririk izan ez duten kopuruak aplikatu ahal izango dira (mugak errespetatuz) hurrengo eta segidako bost urteetan amaítuko diren zergaldietako auto-likidazioetan.*

2.2 KENKARIA HAZKUNDE-AUKERA HANDIA DUTEN ERAKUNDEAK FINANTZATZEAGATIK



2.2 / ADIBIDEA

Demagun inbertitzaile batek 100.000 € inbertitzen dituela sortu berri den erakunde berritzaile batean; eragiketa horregatik, ordaindu beharko duen kuota osoa 30.000 euro, gehienez, kendu ahal izango du. %30eko kenkaria aplikatu ahal izateko, kuota ez da 42.851,14 eurotik beherakoa izango.

Kuota osoa txikiagoa bada (30.000 euro, kasurako), ezin izango du kenkaria osotasunean aplikatu %30eko muga aplikatzeagatik; zergaldian 21.000 euroko kenkaria baino ezin daiteke egin. Mugaren gaineko soberakina hurrengo zergaldietan aplikatu ahal izango da.

INBERTITZAILEAREN BETEKIZUNAK



AURRETIKO LOTURARIK EZA


Ez zergadunak, ez eta 2. mailara arteko senideek ere, ezin izan dute erakundearen, zuzenean nahiz zeharka, parte hartu harpidetza egin aurretik.

LOTURARIK EZA

Sozietateetan izango duen zuzeneko edo zeharkako partaidetzak, ezkontide, izatezko bikotekide eta 2. mailako ahaideekin ere izan dezakeena kontuan hartuta, ezin du, parte hartzeko urteetako egun bakar batean ere, %40a gainditu.

Bost urtetik beherakoa izango ez den epe batean, **ez** izatea partaidetzako erakundearekin kenkaria sortzen duena ez den bestelako **ordainpeko harremanik** (lanekoa nahiz merkataritzakoa), salbu eta mailegu-kontratuetatik eratorritakoa eta kontseilari edo administratzaile batek berezkoa duena, betiere hori lan-harreman baten bidez gauzatzen ez bada.

INBERTSIOAREN BETEKIZUNAK



Harpidetutako akzioak edo partaidetzak zergadunaren esku egongo dira ordaindu direnetik gutxienez **5 urteko epean**, salbu eta epe horretan zergaduna hiltzen bada, edo partaidetzako erakundea konkurtso-prozedura baten ondorioz likidatzen bada.

2.2

KENKARIA HAZKUNDE-AUKERA HANDIA DUTEN ERAKUNDEAK FINANTZATZEAGATIK

HARPIDETZAK SALTZEN DITUEN ERAKUNDEAREN BETEKIZUNAK



- » Merkataritza-izaera SA (sozietate anonimoa), SL (sozietate mugatua), SAL (lan-sozietate anonimoa) edo SLL (erantzukizun mugatuko lan-sozietatea) izango da.
- » Egoitza soziala eta fiskala Espainian egotea.
- » Inbertsioa burutzen den ekitaldian mikroenpresa edo ETE izatea, Gipuzkoako SZFAko 13. artikuluan ezarritakoa betez:
 - a. Aktiboa ez izatea 43 milioi eurotik gorakoa edo, bestela, eragiketa bolumena, ez izatea 50 milioi eurotik gorakoa.
 - b. Batez beste, plantillan 250 pertsona baino gutxiago edukitzea.
 - c. Lehen adierazitako betekizunetako bat betetzen ez duen beste enpresa batek haren gaineko %25etik gorako partaidetzarik ez edukitzea -ez zuzenean, ez zeharka.
- » Inbertsioa burutzen den ekitaldian konkurtso-egoeran ez egotea edo konkurtso-prozedura baten pean egoteko baldintzarik ez betetzea.
- » Ez egotea negoziazorako onarturiko inolako merkatu antolatutan.
- » Ondare-sozietateentzat aurreikusten diren inguruabarrak ez betetzea.
- » Jarraian zerrendatzen diren jarduerak ez egitea:
 - › Nekazaritza, arrantza eta akuikultura.
 - › Esportazioarekin lotutako jarduerak.
- › Lurren, salgaien, aukera eta gerokoen, eta akzio, balore edo beste finantza tresna batzuen salerosketa.
- › Ondasunen salerosketa, handizkako edo txikizkako salmenta jarduera arrunta ez denean.
- › Finantza jarduerak, hala nola banka, aseguruak, maileguak edo factoring-a.
- › Aktiboen alokairua edo lagapena.
- › Royalty edo lizentzien ustiapena, salbu eta ustiatzen den aktiboa entitateak sortu duenean.
- › Lege edo kontabilitate zerbitzuen prestazioa.
- › Higiezinaren sustapena.
- › Basoak ustiatzeko jarduerak.
- › Itsasontzien eraikuntza.
- › Ikazkintza.
- › Altzairugintza.
- › Hotelen edo antzekoen ustiapena edo zuzendaritza, jarduera horietara bideratutako higiezinena barne.
- › Zahar egoitzen edo pertsonak zaintzeko zentroen ustiapena edo zuzendaritza, jarduera horietara bideratutako higiezinena barne.
- › Elektrizitatearen produkzioa edo ustiapena.
- » Negozio-plan bat landu.
- » Erakunde onuradunak lortuko duen finantzaketa-zenbateko osoak ez du, arriskua finantzatzeko edozein neurriren barruan, 15 milioi euroko kopurua gaindituko diruz lagundu daitekeen enpresa bakoitzeko.
- » **Erakunde berritzaile** sortu berriak direnean, horiek, lehen ezarritako 5 urteko epean, ordaindutako zenbatekoaren %50 ikerketa eta garapenarekin edo berrikuntza teknologikoarekin, nahiz horien emaitzak ekoiztearekin edo merkaturatzearekin lotura zuzena duten gastu edo inbertsioetara bideratu beharko dute.

2.2

KENKARIA HAZKUNDE-AUKERA HANDIA DUTEN ERAKUNDEAK FINANTZATZEAGATIK

- » **Hazkunde-prozesuan** dauden **erakundeak** direnean, horiek, lehen ezarritako 5 urteko epean, ordaindutako zenbatekoaren %50 merkatu geografiko edo produktuen merkatu berri batean sartzeari helburu hartuta landuko den negozio-plana gauzatzera bideratu beharko dute.
- » Kenkaria egiteko, zergadunak **ziurtagiri** bat lortu beharko du, akzioak edo partaidetzak saldu dizkion erakundeak emana; ziurtagiri horretan, lehen aipatutako betekizunak akzioak edo partaidetzak erosi ziren zergaldian betetzen zirela adieraziko da.
- » Era berean, erakunde berritzailearen betekizunak betetzeari buruzko txosten arrazoitua aurkeztu beharko du, edo hazkuntza-prozesuan dagoen erakundearen izaerari buruzko aurretiazko administrazio-loturaren prozeduraren aldeko ebazpena.

EZ BETETZEA



Aipatutako betekizunak ez betetzeak berarekin ekarriko du egindako kenkaria itzultzea, horri dagozkion berandutze-interesekin.

2.2

KENKARIA HAZKUNDE-AUKERA HANDIA DUTEN ERAKUNDEAK FINANTZATZEAGATIK

2.2 / LABURPENA

	89 hir. 1) artikulua	89 hir. 2) artikulua
Hartzailea	ETE berritzailea. Lehen 5 urteak.	5 urtetik beherako ETEak hazkunde-prozesuan.
Kenkaria (%)	%30.	%15.
Kenkariaren gehieneko oinarria	300.000 €-ko kuota.	150.000 €-ko kuota.
Inbertsioaren mugak	1.000.000, gehieneko oinarri bateratua. Kuota likidoa > %30 kuota osoa.	
Inbertsioa mantentzea	5 urte.	
Beste alderdi batzuk	Nahitaezkoa da «erakunde berritzailea dela ziurtatzen duen aurretiko txostena», identifikazioa, eskaria eta memoria barne. <i>Business Angels</i> (ekarpena: lanbide esperientzia, ordainketarik gabe).	Beharrezkoa da zergen aurreko kontsulten eta adostasunen prozedura bidezko baimena. <i>Business Angels</i> (ekarpena: lanbide esperientzia, ordainketarik gabe).

2.2 KENKARIA HAZKUNDE-AUKERA HANDIA DUTEN ERAKUNDEAK FINANTZATZEAGATIK



2.2 / 1. ADIBIDEA

Ainhoa. Egoitza fiskala Gipuzkoan dauka, eta 80.000 €-ko errenta. 50.000 €-ko inbertsioa egin du sortu berri den Startup berritzaile batean (kenkaria %30). Zer aurrezpen ekar diezaioke PFEZn?

	PFEZ inbertsiorik gabe	PFEZ inbertsioarekin
Inbertsioa	-	50.000€
Inbertitzailearen laneko errentak (ZO)	80.000€	80.000€
Zerga-arintze aurretik ordaindu beharreko PFEZ	27.115€	27.115€
Kenkariarengatiko aurrezpena foru-lurraldean	0€	-15.000€
Ordaindu beharreko PFEZ	27.115€	12.115€
Errenta garbia PFEZ ondoren	52.885 €	67.885€

JARRAIPENEO INBERTSIOAK



Halaber, araudiak gerora egingo diren inbertsioetarako edo ekarpenetarako onurak aurreikusten ditu. Horrela, jarraian ageri diren baldintzak betez gero, inbertitzaileak %30eko kenkari osagarria aplikatu ahal izango dio bere buruari.

KENKARIA (%)

Entitate berritzaile sortu berrietan inbertitutako zenbateko gehigarrien % 30, aurreko kenkaria aplikatu zaion inbertsio bat edo batzuk egin ondoren.

JARRAIPENEO INBERTSIOAREN BETEKIZUNAK

- » Jatorrizko negozio-planean jasota egotea.
- » Sortu eta 5 urteko epean egitea, aurretik kenkaria aplikatzeko finantzaketa-inbertsio bat edo gehiago egin ondoren.

Harpidetza ondoz ondo ordainketak ere halakotzat hartuko dira, baldin eta zergadunak 5 urteko epe berean egiten baditu, eta kenkarirako eskubidea sortutako partzialki ordaindutako akzio edo partaidetzen harpidetzak badira.

ESPEZIALITATEAK

- » Aurreikusten den 1.000.000 euroko kenkari-oinarri maximoak barru hartzen ditu zergadunak egindako hasierako inbertsioa eta jarraipeneko inbertsio guztiak.
- » Ez zaie eskatzen mikroenpresa edo ETE izatea.
- » Zergadunak harpidetza egin aurretik erakundearen parte hartu behar izan du.

2.2

KENKARIA HAZKUNDE-AUKERA HANDIA DUTEN ERAKUNDEAK FINANTZATZEAGATIK



2.2 / 2. ADIBIDEA

Ainhoek, egoitza fiskala Gipuzkoan dauka, eta 80.000 €-ko errenta. Iaz 50.000 €-ko inbertsioa egin zuen sortu berri den Startup berritzaile batean (kenkaria %30) eta horri zegokion kenkaria aplikatu zitzaion. Ekitaldi honetan beste ekarpen bat egin du, 5.000 eurokoa.

	PFEZ inbertsiorik gabe	PFEZ inbertsioarekin
Jarraipeneko inbertsioa	-	5.000€
Inbertitzailearen laneko errentak (ZO)	80.000€	80.000€
Zerga-arintze aurretik ordaindu beharreko PFEZ	27.115€	27.115€
Kenkariarengatik aurrezpena foru-lurraldean	0€	-1.500€
Ordaindu beharreko PFEZ	27.115€	25.615€
Errenta garbia PFEZ ondoren	52.885€	54.385€

KENKARIARI LOTURIKO BESTELAKO ZERGA-ONURAK

Kenkaria aplikatzeko eskubidea eman duten entitate berritzaileen akzioak edo partaidetzak eskualdatzean lortutako galerek, konpentsatu ahal izango dute ondare-elementuak eskualdatzean agerian jartzen diren irabazien saldo positiboa, PFEZaren aurrezkiaren zerga-oinarria kalkulatzeko, hurrengo 10 urteko epean.

ARAUDIA KONTSULTATU



Gipuzkoa:

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 3/2014 Foru Arauaren 66.1 eta 89 ter artikulua.

2.3

COVID PIZGARRIA

**INBERTSIOAGATIK KENKARI
BEREZIA**

INBERTITZAILEARENTZAKO
PIZGARRI FISKALAK

**PERTSONA
FISIKOA - PFEZ**



2.3 COVID PIZGARRIA: INBERTSIOAGATIK KENKARI BEREZIA




Ikusi dugun bezala, **Bizkaia eta Arabako** PFEZren zergadunek zenbait kenkari izateko eskubidea dute enpresa sortu berri batzuen partaidetzak erosteko inbertitutako kopuruengatik.



2020 eta 2021ean, kenkari horiek indarrean jarraituko dute, baina aukera ematen zaie PFEZaren zergadunei Sozietateen gaineko Zergarako aurreikusitako kenkaria aplikatzeko, ondorengo berezitasunekin.

ONURAK



- » % 10 mikroenpresa edo ETE berrietan edo berriki sortutakoetan akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik, 100.000 euroko kenkariaren gehieneko oinarriaren gainean.
- » % 15, gehienez ere 150.000 euroko oinarriaren gainean, inbertitzen den enpresa berria edo berriki sortua bada. Akzioak edo partaidetzak eratzeko unean edo hurrengo 5 urteetan eskuratu beharko dira.
- » % 20, gehienez ere 200.000 euroko oinarriaren gainean, inbertitzen diren enpresak berritzaileak badira. Akzioak edo partaidetzak eratzeko unean edo hurrengo 7 urteetan eskuratu beharko dira. Epe hori ez da eskatuko finantzatzeko hasierako inbertsio arriskutsu bat behar duten erakundeen kasuan, baldin eta, geografia- edo produktu-merkatu berri batean sartzeko egindako negozio-plan batean oinarrituta, aurreko 5 urteetako urteko eragiketa-bolumenaren batez bestekoaren % 50 baino handiagoa bada inbertsio hori.

2.3

COVID PIZGARRIA: INBERTSIOAGATIK KENKARI BEREZIA

BETEKIZUNAK

- » **Loturarik-eza:** zergadunaren eta haren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen zuzeneko edo zeharkako partaidetzak, edo zergadunarekin ahaidetasun-loturaren bidez, lerro zuzenean edo zeharka, odolkidetasunaren edo ezkontza-ahaidetasunaren bidez, bigarren mailara arte (hori barne) elkartutako edozein pertsonak, ezin izango du entitatearen kapital sozialaren edo haren boto-eskubideen %25 baino handiagoa izan.
- » **Gehienez ere ken daitekeen zenbatekoa** ezin da izan likidazio-oinarriaren %15 baino handiagoa.
- » Ezarritako mugak gainditzeagatik kendu ez diren kopuruak hurrengo eta segidako 5 urteetan aplikatu ahalko dira.

PIZGARRIARI LOTUTAKO BESTE ONURA FISKAL BATZUK

- » Kenkari hau aplikatu duen zergadunak akzioak edo partaidetzak saltzean **lortutako irabazia, %100 salbuetsita** egongo da, baldin eta seigarren eta hamargarren urteen artean gertatzen bada, eta %50 salbuetsita egongo da salmenta hamaikagarren eta hamabosgarren urteen artean egiten bada Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan.
- » Partaidetzak edukitzen diren lehenbiziko 15 urteetan, hauek **Ondarearen gaineko Zergatik salbuetsita** egongo dira.

ARAUDIA KONTSULTATU



Araba:

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 2ko **Zerga Premiazko Araugintza Dekretu 7/2020aren 8. eta 11. artikulua.**

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 1eko **Zerga Premiazko Araugintza Dekretu 14/2020aren 7. eta 12. artikulua.**

Bizkaia:

COVID-19 osasun-larrialdiaren ondoren suspertze ekonomikorako tributu-neurri koitunturalei buruzko maiatzaren 5eko **Foru Dekretu 4/2020 arautzailearen 2. Bi artikulua.**

COVID-19rekin lotutako luzapen-neurriei eta beste premiazko neurri batzuei buruzko **11/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 1.Zazpigarren artikulua.**

03


INBERTITZAILEARENTZAKO
PIZGARRI FISKALAK

PERTSONA JURIDIKOA - SZ



Batzuetan, konpainiek beraiek erabakitzen dute beste enpresetan inbertsio-ahalegin bat egitea, edo partikularrek beraiek nahiago izaten dute sozietate baten bidez jardutea haien inbertsio-tresna gisa. Zer onura aplika dakieke sozietateei?

PERTSONA
JURIDIKOA - SZ




PFEZean bezala, oso garrantzitsua da adieraztea jarraian azalduko ditugun zerga-pizgarriak zergadunak aplikatu ahal izango dituela, bere Sozietateen gaineko Zergan aplikatu behar duen araudiaren arabera.

Hau da, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-araudiaren mende dagoen sozietate batean inbertsioak egiten dituen zergadun pertsona juridiko batek, **zergadun horrek Sozietateen gaineko Zergan aplikatzen duen araudiaren arabera, zerga-onura hauetako batzuk edo besteak aplikatu ahal izango ditu.**

3.1

SALBUESPENA
ENPRESETAKO
PARTAIDETZAK
ESKUALDATZEAN

INBERTITZAILEARENTZAKO
PIZGARRI FISKALAK
**PERTSONA
JURIDIKOA - SZ**



3.1 SALBUESPENA ENPRESETAKO PARTAIDETZAK ESKUALDATZEAN

Oro har, beste erakunde batean duen partaidetza saltzea erabakitzen duen sozietate orok partaidetzak saltzerakoan duen besterentze-balioaren eta erosterakoan zuen balioaren arteko aldea ordaindu behar du.

Pizgarriaren ondorioz, salbuetsita geratzen dira erakundearen kapitalaren balore adierazgarriak edo funts propioak besterentzeagatik sor litezkeen errenta positiboak. Alegia, ez dira sarreren artean sartzen akzioak edo partaidetzak saltzeagatik izandako irabaziak.


ONURA



Sozietate ESKUALDATZAILEAREN egoitzan errenta positiboak EZ integratzea:

- » **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan**, salbuetsita geratzen dira akzio edo partaidetzen eskualdatzeagatik sor litezkeen errenta positiboen %100a.
- » **Lurralde komunean eta Nafarroan**, salbuetsita geratzen dira akzio edo partaidetzen eskualdatzeagatik sor litezkeen errenta positiboen %95a.

BETEKIZUNAK



- » **Partaidetza esanguratsua:** besterendu aurretik konpainian zeharkako partaidetza edo partaidetza zuzen bat edukitzea horren tituluak \geq %5ean saltzen badira.
- » **Partaidetza mantentzea:** partaidetzen %5 urtebetez, gutxienez, eduki behar da besterentzeko eguna aurretik.
- » Partaidetzako sozietateak Sozietateen Zerga **ordaindu beharko du eta ez da salbuetsita egongo.**
- » Inbertitutako sozietateak enpresa jarduera gauzatu behar du; hortaz, partaidetzako sozietate filialaren diru-sarreren %85 **enpresa-jardueretik** etorri behar da.

3.1 / LABURPENA

	UE
Partaidetza, %	\geq %5.
Partaidetza mantentzea	Gutxienez urtebete.
Partaidetutako erakundearen betekizuna	Sozietateen Zerga ordaintzea eta salbuetsita ez egotea.
Enpresa-jarduerak egiteagatik lortutako diru-sarrerak	\geq %85.

3.1 SALBUESPENA ENPRESETAKO PARTAIDETZAK ESKUALDATZEAN



3.1 / ADIBIDEA

Sozietate batek eratu zenean 60.000 euro ordainduta Startup baten kapitalean %50eko partaidetza dauka. Handik bi urtera, inbertitzaileak 80.000 €-an besterendu du partaidetza.

	Inbertitzailea, pertsona juridikoa
Inbertsioa	60.000€
Besterentzearen balioa [B.B]	80.000€
Sortutako gainbalioa [B.B - Inbertsioa]	20.000€
Besterentzeagatiko salbuespena	20.000€
Ordaindu beharreko Sozietateen Zerga	0€
Zerga-aurrezkia [Gainbalioa x %24]*	4.800€

PIZGARRIARI LOTUTAKO BESTE ONURA FISKAL BATZUK

Erakunde inbertitzailearen zerga-oinarrian ere ez dira sartuko partaidetzak eskualdatzean lortutako errenta positiboak ez integratzeko baldintzak betetzen dituen partaidetza baten ondorioz lortutako dibidenduak.

ARAUDIA KONTSULTATU



Araba:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 33. artikulua.

Bizkaia:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 33. artikulua.

Gipuzkoa:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauren 33. artikulua.

Lurralde komuna:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko 27/2014 Arauaren 21. artikulua.

3.1 SALBUESPENA ENPRESETAKO PARTAIDETZAK ESKUALDATZEAN

**OHIKO GALDEREN
GAINEKO IRUZKINAK**

Zer da interesgarriagoa, startup batean inbertitzea inbertitzaile partikular moduan, ala sozietate baten bidez inbertitzea?

Demagun startup batean %10eko partaidetza erosi dugula (sortu berritza hartzeko bete behar dituen baldintzak betetzen ditu) 100.000 €-tan, eta seigarren urtean 150.000 €-tan saldu dugula.

		Pertsona fisikoa				Pertsona juridikoa	
		Bizkaia eta Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Lurralde komuna	Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa	Nafarroa eta lurralde komuna
Inbertsioa	Erosketa	100.000,00 €					
	Kenkaria (%)	10	20	0	30	- €	
	Kenkaria (zerga negatiboak)	-10.000,00 €	-20.000,00 €	- €	-30.000,00 €	- €	
Desinbertsioa	Salmenta	150.000,00 €					
	Irabazia	50.000,00 €					
	Zerga-irabazia	- €	50.000,00 €	50.000,00 €	50.000,00 €	- €	2.500,00 €
	Ordaindu beharreko zergak (demagun %25)	- €	12.500,00 €	12.500,00 €	12.500,00 €	- €	625 €
Zergak guztira		-10.000 €	-7.500 €	12.500 €	-17.500 €	- €	625 €

3.1 SALBUESPENA ENPRESETAKO PARTAIDETZAK ESKUALDATZEAN

OHIKO GALDEREN GAINEKO IRUZKINAK

Bestalde, demagun proiektuak merkatua goitik behera aldatu duela eta inbertitzaile batek 300.000 €-tan eskuratu nahi dituela partaidetzak, eta irabazia 200.000 € dela.

Nabarmendu behar da Bizkaian eta Araban zein mesedegarria den Business Angels-ei eta inbertitzaile partikularrei aplikatzen zaien irabaziaren gaineko salbuespen-erregimena, gainera, kenkarien salbuespenarekin batera gertatzen baita.

Bestalde, inbertitzaile partikularrak inbertsioaren gaineko pizgarriak ditu, eta horien konfigurazioa aldatu egingo da inbertitzailearen egoitzaren arabera.


Hori dela eta, lortzea aurreikusten den irabaziaren arabera eta egin nahi den inbertsioaren arabera, interesgarriagoa izango da inbertsio-formula bat ala bestea.

		Pertsona fisikoa				Pertsona juridikoa	
		Bizkaia eta Araba	Gipuzkoa	Nafarroa	Lurralde komuna	Bizkaia, Araba eta Gipuzkoa	Nafarroa eta lurralde komuna
Inbertsioa	Erosketa	100.000,00 €					
	Kenkaria (%)	10	20	0	30	- €	
	Kenkaria (zerga negatiboak)	-10.000,00 €	-20.000,00 €	- €	-30.000,00 €	- €	
Desinbertsioa	Salmenta	300.000,00 €					
	Irabazia	200.000,00 €					
	Zerga-irabazia	- €	200.000,00 €	200.000,00 €	200.000,00 €	- €	10.000,00 €
	Ordaindu beharreko zergak (demagun %25)	- €	50.000,00 €	50.000,00 €	50.000,00 €	- €	2.500 €
Zergak guztira		-10.000 €	30.000 €	50.000 €	20.000 €	- €	2.500 €

3.2

**PARTAIDETZA-
MAILEGUETATIK
ERATORRITAKO
INTERESEN GAINEKO
SALBUESPENA**

INBERTITZAILEARENTZAKO
PIZGARRI FISKALAK
**PERTSONA
JURIDIKOA - SZ**



3.2 PARTAIDETZA-MAILEGUETATIK ERATORRITAKO INTERESEN GAINEKO SALBUESPENA

Partaidetza-maileguetan ordainketa, oro har, interes bat izaten da, mailegu-hartzailearen negozioak (mozkinak, errenta-bolumena, eta abar) duen martxari buruzko aldagaien arabera kalkulatuta. Batzuetan, interes finko bat ere itundu daiteke.

Bada, sozietate batek beste bati halako ezaugarriak dituen mailegu bat ematen badio, mailegua zergapetuta ez egotea pizgarria izango da; hau da, ez da diru-sarrera gisa jasoko, mailegu-emailearen Sozietateen Zergaren aitorpenean, partaidetza-maileguen ordainketa, beti ere interes aldakorrek jasotzen badira, interes horiek erakunde mailegu-hartzailearen mozkinen ondorio direnean.

Interes finkotik eratorritako ordainketari ez zaio salbuespena aplikatuko.

Mailegu-formula oso gomendagarria da Startup-entzat. Horietan, lehen ekitaldietan, mozkinik ez izatea gerta daiteke; hortaz, ekitaldi horietan ez dute finantza-gastuen kargarik izango. Horregatik, arriskua partekatua izanik eta interesen ordainketa atzeratzeko aukera egonda, interes horiek interes finkoarekin ituntzen direnak baino altuagoak izan ohi dira.


Bestalde, ordainketa kapitalean daukagun partaidetza baten antzekoa da; alegia, negozioaren martxa onaren baitan dago. Nolanahi ere, ez du eskubide politikorik ematen; hortaz, mailegu-emaileak ez du sozietatearen erabakietan parte hartzen.

ONURA MOZKINA



Partaidetza-maileguetatik eratorritako interes aldakorren bidez lortutako etekinak ez integratzea edo salbuestea.

FORU ARAUDIAK ESKATZEN DITUEN BETEKIZUNAK



Pizgarri hau **Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako** foru-lurraldeetako zergadunei aplikatuko zaie, honako hauek betetzen direnean:

Maileguaren xedea: enpresa-jarduera edo proiektu berriak finantzatzea. Horiek ez dira aurrez egindakoak izango, ez erakunde mailegu-emailearen, ez mailegu-hartzailearen, ezta horiekin lotura duten pertsonen edo erakundeen aldetik ere, SZFAko 42. artikuluan jasotako baldintzetan.

Maileguaren ordainketa: erakunde mailegu-emaileak interes aldakorra jaso behar du, enpresa mailegu-hartzailearen jardueraren bilakaeraren arabera zehazten dena. Bilakaera hori zehazteko irizpidea izan daiteke: irabazi garbia, negozio-bolumena, ondare osoa edo kontratugileek askatasunez adostutako beste edozein.

Mailegu-emailearen partaidetza (%): mailegu-emaileak mailegu-hartzailearen kapitalean edo funts propioetan parte hartuko du, zuzenean nahiz zeharka, gutxienez %25ean.

Partaidetza mantentzea: urtebete asetzen den interes aldakorra eskatu ahal izatearen aurretik.

3.2 PARTAIDETZA-MAILEGUETATIK ERATORRITAKO INTERESEN GAINEKO SALBUESPENA

Salbuetsitako errenta honako hauetara bideratuko da:

- » Partaidetza-mailegu berriak ematera.
- » Enpresa-kapitalizazioa sustatzeko erreserba hornitzera.
- » Ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera indartzeko erreserba berezia hornitzera (5 urtez ez da erabiltzeko moduan egongo).

Mugak:

Salbuetsitako zenbatekoak ondorengo kopuru hauetatik bakarra ere ezingo du gainditu:

- » Mailegu-hartzailearen mozkinen %20 (partaidetza-maileguaren interesen aurretik), bider mailegu-emaiaren partaidetzaren %a.
- » Indarrean dagoen berandutze-interesaren tasa 1,5 aldiz (egungo muga $1,5 \times \%3,75 = \%5,625$ litzateke) zergaldian zehar maileguak duen batez besteko saldoaren gainean.

3.2 / LABURPENA

	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
Maileguaren xedea	Enpresa-jarduera/proiektu berriak finantzatzea.
Partaidetza, %	%25.
Partaidetza mantentzea	Urtebete, gutxienez.
Salbuetsitako errentaren helmuga	<ul style="list-style-type: none"> • Partaidetza-mailegu berriak ematea. • Enpresa-kapitalizazioa sustatzeko erreserba hornitzea. • Ekintzailtza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera indartzeko erreserba berezia hornitzea (5 urtez ez da erabiltzeko moduan egongo).
Salbuetsitako zenbatekoaren muga ondorengoak baino txikiagoa izango da	<ul style="list-style-type: none"> • Erakunde mailegu-hartzailearen mozkinen %20, interesen aurretik eta partaidetzaren arabera. • Indarraldian dagoen berandutze-interes tasaren %150.

3.2 PARTAIDETZA-MAILEGUETATIK ERATORRITAKO INTERESEN GAINEKO SALBUESPENA



3.2 / ADIBIDEA

Enpresa batek startup baten partaidetzen %50 dauka, eta horri partaidetza-mailegu bat eman dio, 100.000 €-koa. %20ko interes-tasa adostu da.

	Bizkaia
Maileguaren zenbatekoa	100.000€
Interesak	20.000€
Tributazioa onura fiskalik gabe (%24)	4.800€
Zerga-aurrezkia %24ko interes-tasarekin	4.800€

PARTAIDETZA-MAILEGUETATIK ERATORRITAKO INTERESEN GAINEKO SALBUESPENA LURRALDE KOMUNAN



Lurralde komunean, Merkataritza Kodearen 42. Artikuluaren arabera merkataritza-talde bateko kide diren erakundeen arteko partaidetza-maileguetatik eratorritako interesak, funts propioen ordainsaritzat hartzen dira (dibidenduak), eta ondorioz:

- » Erakunde ordaintzailearentzat ez dira gastu kengarriak, zergei dagokienez.
- » Erakunde mailegu-emaielaren egoitzan ez dute zergarik ordaindu beharko.

ARAUDIA KONTSULTATU



Araba:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 31.5. eta 39.3. artikulua.

Bizkaia:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 31.5 eta 39.3. artikulua.

Gipuzkoa:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 39.5. artikulua.

Lurralde komuna:


Sozietateen gaineko Zergari buruzko azaroaren 27ko Arauaren 15.a) eta 21.2.2º artikulua.

3.3

COVID PIZGARRIAK: INBERTSIOAGATIK APARTEKO KENKARIA

INBERTITZAILEARENTZAKO
PIZGARRI FISKALAK

**PERTSONA
JURIDIKOA - SZ**



3.3 COVID PIZGARRIAK: INBERTSIOAGATIK APARTEKO KENKARIA



Sozietateen gaineko Zergaren esparruan, **Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako** lurraldeak zenbait koiunturazko neurri hartu ditu ekonomia suspertzeko. Horien artean, Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, inbertitzeagatik aparteko kenkari bat onartu da, mikroenpresa, enpresa txiki eta ertaintzat hartzen diren enpresetako akzioak edo partaidetzak harpidetzean edo erostean 2020. urtean ordaindutako zenbatekoengatik.

ONURA



Araudiak hiru kenkari maila aurreikusten ditu, inbertsioaren xede den enpresak betetzen dituen ezaugarrien arabera:

- » %10 mikroenpresa edo ETE berrietan edo berriki sortutakoetan akzioak edo partaidetzak harpidetzeagatik, 100.000 euroko kenkariaren gehieneko oinarriaren gainean.
- » %15, gehienez ere 150.000 euroko oinarriaren gainean, inbertitzen den enpresa berria edo berriki sortua bada. Akzioak edo partaidetzak eratzeko unean edo hurrengo 5 urteetan eskuratu beharko dira.

- » %20, gehienez ere 200.000 euroko oinarriaren gainean, inbertitzen diren enpresak berritzaileak edo, Gipuzkoaren kasuan, hazten ari direnak badira. Akzioak edo partaidetzak eratzeko unean edo hurrengo 7 urteetan eskuratu beharko dira. Epe hori ez da eskatuko arriskua finantzatzeko hasierako inbertsio bat behar duten erakundeen kasuan, baldin eta, geografia- edo produktu-merkatu berri batean sartzeko egindako negozio-plan batean oinarrituta, aurreko 5 urteetako urteko eragiketa-bolumenaren batez bestekoaren %50 baino handiagoa bada inbertsio hori.

Kenkari honen aplikazioak ezin izango du kuota likidoaren %35eko muga orokorra gainditu eta gutxienezko tributazio araua aplikatuko da. Kuota aski ez izateagatik aplikatzen ez diren kopuruak hurrengo eta segidako 30 urteetan aplikatu ahalko dira.

BETEKIZUNAK



- » Merkataritza-izaera SA (sozietate anonimoa), SL (sozietate mugatua), SAL (lan-sozietate anonimoa) edo SLL (erantzukizun mugatuko lan-sozietatea) izango da.
- » Egoitza soziala eta fiskala Espainian egotea.
- » Ekonomia-jarduera gauzatzea; hau da, ez izatea inbertsio-tresna hutsa, eta ez izatea ondare-sozietatea.
- » Akzio edo partaidetza eduki den urte guztietan kotizatu gabeko sozietatea izatea.
- » Mikroenpresea edo ETE izaera betetzea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araubideko (SZFA) 13. artikulua arabera:
 - a) Aktiboa ez izatea 43 milioi eurotik gorakoa edo, bestela, eragiketa bolumena, ez izatea 50 milioi eurotik gorakoa.
 - b) Batez beste, plantillan 250 pertsona baino gutxiago edukitzea.
 - c) Lehen adierazitako betekizunetako bat betetzen ez duen beste enpresa batek haren gaineko %25etik gorako partaidetzarik ez edukitzea -ez zuzenean, ez zeharka.

3.3

COVID PIZGARRIAK: INBERTSIOAGATIK APARTEKO KENKARIA

- » Eskuratutako edo harpidetutako akzio edo partaidetzak gutxienez 5 urtez egon beharko dira zergadunaren ondarean.
- » Partaidetza portzentajea ezin da %25etik gorakoa izan, ez zuzenean, ez zeharka, ez entitate lotuekin batera. Salbu eta zergaduna edo entitate partaidetua konkurtso prozedura baten ondorioz likidatzen bada.
- » Kenkaria egiteko, PFEZaren autolikidazioa aurkeztean berariaz aplikatzearen alde egiteaz gain, akzioak edo partaidetzak eskuratu dituen entitateak emandako ziurtagiri bat lortu behar du zergadunak. Ziurtagiri horretan adierazi behar da aurreko baldintzak betetzen direla horiek eskuratu ziren zergaldian.

Araban eta Bizkaian, mikroenpresa edo ETE berritzaileen kasuan, gainera, Europar Batasunaren Erregelamenduaren arabera berritzaile gisa kalifikatzeko ezarritako baldintzak betetzen dituztela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko dituzte aditu independenteek.

EZ-BETETZEA



Aurreko baldintzak betetzen ez badira, egindako kenkariaren zenbatekoa itzuli beharko da, dagozkion berandutze-interesekin.

ARAUDIA KONTSULTATU



Araba:

Foru Gobernu Kontseiluaren ekainaren 2ko [Zerga Premiazko Araugintza Dekretu 7/2020aren 8. eta 11. artikulua.](#)

Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 1eko [Zerga Premiazko Araugintza Dekretu 14/2020aren 7. eta 12. artikulua.](#)

Bizkaia:

COVID-19 osasun-larrialdiaren ondoren suspertze ekonomikorako tributu-neurri koiunturalei buruzko maiatzaren 5eko [Foru Dekretu Arauemaile 4/2020aren 2. Bi artikulua.](#)

COVID-19rekin lotutako luzapen-neurri eta beste premiazko neurri batzuei buruzko abenduaren 1eko [11/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 1.7 artikulua.](#)

Gipuzkoa:

COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondoren ekonomia suspertzeko koiunturazko zerga arloko neurri buruzko maiatzaren 26ko [5/2020 Foru Dekretu-Arauaren 8. artikulua.](#)

COVID-19aren bigarren olatuak eragindako ondorioak arintzeko zerga arloko presazko neurri buruzko abenduaren 1eko [11/2020 Foru Dekretu-Arauaren 11. artikulua.](#)


3.4

EKINTZAIETZA SUSTATZEKO ETA
EKOIZPEN-JARDUERA INDARTZEKO
ERRESERBA:

PARTAIDETZAK ESKURATZEA

INBERTITZAILEARENTZAKO
PIZGARRI FISKALAK

**PERTSONA
JURIDIKOA - SZ**



3.4 EKINTZAILETZA SUSTATZEKO ETA EKOIZPEN-JARDUERA INDARTZEKO ERRESERBA: PARTAIDETZAK ESKURATZEA



Pizgarri hori **Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako** zergadunei aplikatzen zaie. Ez dago halakorik lurralde komunan, eta Nafarroan, berriz, inbertsioetarako erreserba bereziaren (IEB) aplikazioa ibilgetuaren elementuak eta ondasun higiezinak inbertsioak eskuratzera mugatzen da.

ONURA



Erreserba honi bideratzen den ekitaldiko kontabilitate-emaizta positiboaren zenbateakoren %60ko kenkaria Sozietateen gaineko Zergaren zerga-oinarrian.

Alegia: ekitaldi bateko kontabilitate-emaizta aplikatzean, kopuru bat “Ekintzailletza Sustatzeko eta Ekoizpen Jarduera Indartzeko Erreserba Berezia” izeneko erreserbara eraman daiteke. Kopuru hori ezin izango da erabili hiru urtez, eta zenbatekoak Arauak adierazitako helburuetara bideratu beharko dira. Eratutako erreserbaren zenbatekoaren %60k zergapetutako mozkina gutxituko du.

KENKARIAREN KONFIGURAZIOA



- » Kenkaria oinarriaren gainekoa izango da; hortaz, zerga-aurrezpena zerga-tasarengatik kenkariaren zenbatekoa izango da, adibidean ikus daitekeen moduan.
- » **Urtean kenkariak izango duen gehieneko muga:** zergaldiko zerga-oinarriaren gaineko %45.
- » Gipuzkoan, enpresen kapitalizazioa sustatzeko konpentsazioa, etekinak berdintzeko erreserba berezia, ekintzailletza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera indartzeko erreserba berezia eta zerga-oinarri negatiboen konpentsazioaren aurreko zerga-oinarriaren %45.

ZENBATEKOAREN ETA GAUZATZEAREN INGURUKO BETEKIZUNAK



- » Erreserbaren zenbatekoa: ez du gaitutuko inoiz ondare garbiaren %50, salbu eta gehikuntza hori kontabilitateko galerak daudelako gertatu bada.
- » Erreserba berezia erabili ezin izango den epea: hiru urte.
- » Erreserbaren zenbatekoa 3 urteko epean, gehienez, SGFAaren 43. artikuluan aurreikusitako xedeetakoren batera bideratuko da, besteak beste:
 - a) Kapitalean edo funts propioetan partaidetzak erostera; horiek, zuzenean edo zeharka, %5 izango dira, eta gutxienez 5 urteko iraunaldia edukiko dute. Inbertitutako sozietateak bete beharko du:
 - > Kotizatu gabeko sozietatea izatea.
 - > Batez beste, plantillan 250 pertsona baino gutxiago edukitzea.

3.4 EKINTZAILITZA SUSTATZEKO ETA EKOIZPEN-JARDUERA INDARTZEKO ERRESERBA: PARTAIDETZAK ESKURATzea

- > Enpresa jarduera gauzatu behar du; hortaz, partaidetzako sozietate filialaren diru-sarreraren %85 enpresa-jardueretatik etorri behar da.
 - > Jarduera, produktu edo merkatu berriak garatzea, lehendik dauden beste batzuk zabaltzea edo sendotzea, edo enplegu egonkorak sortzea dakarten enpresa-proiektu garrantzitsuak inplementatzea.
 - > Inbertsioak erakundearen ondare garbia nabarmen handitzea.
 - > Kapital-merkatuetarako sarbidean zailtasunak izatea, egin beharreko inbertsioen garrantziaren, berritasunaren edo arriskuaren ondorioz (mikroenpresa edo ETE sortu berriak).
 - > Inbertitzailearekiko aurretiko loturarik eza.
 - > Aurrez, administrazioa lotesteko prozedura abiarazi beharko da; nahitaezkoa izango da aldeko ebazpena zerga-oinarria aurreikusitako baldintzetan murriztuko bada.
- b) Kapitalean partaidetzaren bidezko inbertsioa, 5 urtez mantendutakoa, enpresa-proiektu berri bat gauzatzeko hasierako etapan, hazkunde-aukera handia duten mikroenpresa edo ETEtan. Halaber, enpresaren kudeaketan parte hartu ahal izango da, epe motzera errentagarritasuna lortzeko helburuarekin.
- > **Araba eta Bizkaia:** zerga-onura hori lehenengo 100.000 €-ko inbertsioek baino ez dute izango enpresa-proiektu berri bakoitzeko.
 - > **Gipuzkoa:** aurreko muga 300.000 €-koa izango da, inbertitzaile eta zergaldi bakoitzeko, eta enpresa-proiektu berri bakoitzeko erakundea eratu eta 5 urteko epe osoan.
- » Inbertsioa proiektu berri bat garatzeko hasierako etapan egiten dela ulertuko da erakunde partaidetua eratu zenetik bost urte baino gutxiago igaro direnean, eta erakunde horren bidez ez denean lehenago beste titulartasun baten bidez gauzatzen zen jarduera bera egiten.
 - » Erakunde inbertitua ezin da inbertsiogilearekiko lotutako erakundea izan.
 - » Inbertsioa egin ondoren, erakunde inbertitzaileak, lotutako pertsona edo erakundeekin batera, ezin izango du inbertitutako erakundearen kapital sozialaren edo boto-eskubideen % 40an baino gehiagotan parte hartu, zuzenean edo zeharka, partaidetza duten zergaldietako ezein egunetan. Enpresaren kudeaketan parte har daiteke, baina ez ordaindutako harreman baten bidez.



COVID NOBEDADEAK:

Erreserba bideratzeko epea 3 urtetik 4 urtera luzatzen da, epe hori 2020an edo 2021ean amaitzen denean.

- » Ezin dute onura hau aplikatu Sozietateen gaineko Zergaren araubide berezien mende dauden erakundeek.
- » Onura hau bateraezina da mikroenpresen tamainak eragiten dituen zailtasunen zerga-konpentsazioarekin.

3.4 EKINTZAIETZA SUSTATZEKO ETA EKOIZPEN-JARDUERA INDARTZEKO ERRESERBA: PARTAIDETZAK ESKURATZEA

EZ BETETZEA



Inbertsioa ez gauzatzeak berarekin ekarriko du zerga-oinarriari itzultzea aplikatu ez den zenbatekoaren %115.

Erabilpen-epea ez betetzeak berarekin ekarriko du zerga-oinarriari itzultzea aplikatu ez den zenbatekoa, zenbateko horri %5 erantsiz erreserba berezia hornitu zen zergalditik igarotako urte bakoitzeko.

3.4 / LABURPENA

	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
Zerga-oinarriaren murrizketa, %	%60
Murrizketaren gehienezko muga	Zerga-oinarriaren %45
Erreserbara egindako zuzkiduraren zenbatekoa	≤ Ondare garbiaren %50
Gauzatzeko epea	3 urte

3.4 EKINTZAIETZA SUSTATZEKO ETA EKOIZPEN-JARDUERA INDARTZEKO ERRESERBA: PARTAIDETZAK ESKURATZEA



3.4 / ADIBIDEA

Sozietate batek erabaki du bere kontabilitate-emaitzaren gaineko erreserba bat egitea: 225.000 €. Sozietate horren zerga-oinarria 300.000 € da.

	Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa
Kontabilizatutako erreserba	225.000€
Ekitaldiko zerga-oinarria	300.000€
Zerga-oinarriaren murrizketa	135.000€
Zerga-aurrezkia %24ko interes-tasarekin	32.400€
Hartutako inbertsio-konpromisoa	225.000€

Hortaz, mozkin berdina lortzeko, bere kontabilitate-emaitzaren gainean erreserbarako zuzkidura egiten duen enpresak 39.600 euro ordainduko ditu Sozietateen Zergaren aitorpenean, erreserba berezi hori zuzkitu izan ez balu Sozietateen Zergan ordaindu beharko lituzkeen 72.000 euroekin alderatuta.

ARAUDIA KONTSULTATU



Araba:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauaren 53. artikulua.

Bizkaia:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Arauaren 53. artikulua.


Gipuzkoa:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 53. artikulua.

3.5

BERARIAZKO
KENKARIA I+G+b
FINANTZATZEAGATIK

INBERTITZAILEARENTZAKO
PIZGARRI FISKALAK
**PERTSONA
JURIDIKOA - SZ**



3.5 BERARIAZKO KENKARIA I+G+b FINANTZATZEAGATIK



Oso neurri interesgarria da inbertitzaileentzat, osagarri teknologiko altuko startup-etara hurbiltzeko aukera ematen dielako, eta pizgarri ekonomiko garrantzitsua eskaintzen dielako. Neurria **Araban, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan** ezarri daiteke, konfigurazioa eta mugak, lurraldearen arabera, desberdinak badira ere.


Pizgarria honetan datza: beste zergadunek burutzen dituzten ikerketa- eta garapen-proiektuak finantzatzen parte hartzen dutenei aplikatzen zaien kenkaria, betiere proiektuek Sozietateen Zergaren araudiak I+G+b-ko jarduketak gauzatzeko kontzeptuagatik kenkari-eskubidea sortzeko ezartzen dituen baldintzak betetzen badituzte.

PIZGARRIA: ZERGA-KREDITUAK LAGATZEA



Beste zergadun batzuek ikerketa- eta garapen-proiektuak finantzatzen parte hartzen dutenek kenkari bat aplikatu ahal izango dute, eta finantzaketa horren ondorioz, %20ko edo %25eko errentagarritasun fiskala lortu ahal izango da.

Bestalde, ikertzaileak inbertitzailearen finantzaketa jasoko du I+G+b jarduerak sortzen duen I+G+b-rengatiko kenkariak lagatzearen ordainetan. Egoera normaletan, ezin dira aplikatu, zenbait abagune direla eta.



3.5 BERARIAZKO KENKARIA I+G+b FINANTZATZEAGATIK

ONURAREN KONFIGURAZIOA

Ikertzaileak uko egingo dio I+G+b-rengatiko kenkariak aplikatzeari, guztiz edo zati batean.

Finantzatzaileak proiektua garatzeari dagokion eta inbertitzaileak aplikatzen ez duen kenkaria aplikatuko du.

Kenkaria mugatua egongo da:

- » **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan:** finantzaketan jarritako zenbatekoen %120ra.
- » **Nafarroan:** finantzaketan jarritako zenbatekoen %125era.
 - › Soberakina I+G+b proiektua garatzen duenak aplikatu ahal izango du.

Kenkaria ezin izango du gainditu:

- » **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan:** zerga likidoaren %35, muga duten gainerako kenkariekin batera.
- » **Nafarroan:** zerga likidoren %40, muga duten gainerako kenkariekin batera.
 - › Sozietateen gaineko Zergaren araudian konfiguratutako gutxieneko tributazioa aplikatuko da.

INBERTSIOAREN BETEKIZUNAK

- » Finantzatzaileak I+G+b proiektuak finantzatzeko funtsak jarriko ditu. Funts horiek jasoko dituenak ez ditu itzuli beharko.
- » Funtsak jaso dituenak I+G+b proiektua landuko du. Proiektuaren jabetza intelektuala edo industrialia proiektua gauzatuko duen zergadunarena izango da, beti.
- » I+G+b proiektua egingo duenak dagokion Kalifikazio Fiskalaren Txosten Teknikoa eskatuko dio erakunde eskudunari, eta lortu beharko du.
- » Biek finantzaketa-kontratua sinatu beharko dute, araudiak eskatzen duen gutxieneko informazioarekin, hurrengoko epean:
 - › Epe orokorra: txosten teknikoa lortu ondoren eta proiektua gauzatzen hasi aurretik.
 - › Kontratua gauzatzeko lehenengo 3 hilabeteetan ere egin daiteke, baldin eta haren garapena hasten den zergaldia amaitu ez bada eta Kalifikazio Fiskaleko Txosten Teknikoa eskatu bada.
- » Txostena eta finantzaketa-kontratua Zerga Administrazioari jakinarazi beharko zaizkio proiektua garatzen hasten den aldia amaitu baino lehen.
- » Ezin izango da kenkari hori aplikatu proiektuaren finantzatzaileak hura burutuko duen zergadunarekin lotura badu.

3.5 BERARIAZKO KENKARIA I+G+b FINANTZATZEAGATIK



COVID NOBEDADEAK:

- » Kontratuak sinatzeko epea hiru hilabetetik bederatzira luzatu da, 2020ko eta 2021eko ekitaldietan hasitako ikerketa eta garapeneko edo berrikuntza teknologikoko proiektuei dagokienez.
- » Proiektu horien finantzaketa-kontratuak aldatzea ahalbidetzen da 2020an eta 2021ean abian daudenean, aurrez ezarritako ordainketen eta gastuen eta inbertsioen egutegia doitzeko.
- » Jada formalizatuta dauden finantzaketa-kontratuaren parte hartzen duen zergadunaren (inbertitzailea) posizioan hirugarren bat subrogatzea onartzen da, subrogazio hori gertatzen bada:
 - > **Arabian eta Bizkaian:** proiektua hasten den zergaldiko lehen 9 hilabeteetan, betiere subrogazioa 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldiko lehen bederatzi hilabeteetan egiten bada.
 - > **Gipuzkoan:** 2020ko martxoaren 14tik 2020ko abenduaren 31ra bitarteko aldi, proiektua 2020an abian badago, edo zergaldiko lehen 9 hilabeteetan, 2021ean hasi bada.

INBERTITUTAKO ENPRESAREN BETEKIZUNAK ARABAN ETA GIPUZKOAN



- » Merkataritza-izaera SA (sozietate anonimoa), SL (sozietate mugatua), SAL (lan-sozietate anonimoa) edo SLL (erantzukizun mugatuko lan-sozietatea) izango da.
- » Ez izatea ondare-sozietatea.
- » Proiektua garatu bitartean kotizatu gabeko sozietatea izatea.
- » **Arabian** jarraian zerrendatzen diren jarduerak ez egitea:
 - > Nekazaritza, arrantza eta akuikultura.
 - > Esportazioarekin lotutako jarduerak.
 - > Lurren, salgaien, aukera eta gerokoen, eta akzio, balore edo beste finantza tresna batzuen salerosketa.
 - > Ondasunen salerosketa, handizkako edo txikizkako salmenta jarduera arrunta ez denean.
 - > Finantza jarduerak, hala nola banka, aseguruak, maileguak edo factoring-a.
 - > Aktiboen alokairua edo lagapena.
 - > Royalty edo lizentzien ustiapena, salbu eta ustiatzen den aktiboa entitateak sortu duenean.
 - > Lege edo kontabilitate zerbitzuen prestazioa.
 - > Higiezinaren sustapena.
 - > Basoak ustiatzeko jarduerak.
 - > Itsasontzien eraikuntza.
 - > Ikazkintza.
 - > Altzairugintza.
 - > Hotelen edo antzekoen ustiapena edo zuzendaritza, jarduera horietara bideratutako higiezinena barne.
 - > Zahar egoitzen edo pertsonak zaintzeko zentroen ustiapena edo zuzendaritza, jarduera horietara bideratutako higiezinena barne.
 - > Elektrizitatearen produkzioa edo ustiapena.

3.5 BERARIAZKO KENKARIA I+G+b FINANTZATZEAGATIK

- » Kontratua formalizatzeko momentuan ez egotea konkurtso-prozeduran.
- » **Araban**, mikroenpresa edo ETE berritzailea¹ izatea proiektua gauzatzen den bitartean. **Gipuzkoan**, enpresa berritzaile sortu berria.



COVID NOBEDADEAK

2020an eta 2021ean ez da betekizun hau eman behar enpresa inbertitzailea mikroenpresa edo ETE bat denean.

- » Ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoaren proiektua burutuko duen zergadunak, eta horrekin batera taldea osatzen duten erakundeek, pizgarri hau aplikatuta ezin izango dute 200.000 eurotik gorako finantzaketa jaso hiru urtez jarraian.



COVID NOBEDADEAK

2021ean Gipuzkoan aurreko muga 1.000.000 eurokoa izango da:


- » 2021ean hasitako kontratuentzat.
- » 2022an hasi, baina 2021ean sinatutako kontratuentzat.
- » 2020an hasi eta 2021ean aldatutakoak inbertsioen egutegia doitzeko.

- » Finantzaileak eta horrekin lotura duten pertsonak edo erakundeek ezin dute partaidetzarik eduki proiektua gauzatzen duen erakundeak; aurrez, pizgarria ezarri baino 3 urte lehenagotik, proiektua gauzatzen den bitartean, ezta bukatu eta hurrengo hiru urteetan ere.

¹ / Erakunde berritzailetzat hartzen da, etorkizunean, bere sektoreko teknikaren egoerarekin alderatuta, produktu, zerbitzu edo prozesu berriak edo nabarmen hobetuak garatuko dituela frogatzea edo porrot teknologiko edo industrialeko arriskua duen enpresa oro, edo I+Geko kostuak ustiapen-kostu guztien %10 badira gutxienez laguntza eman aurreko hiru urteetako batean, edo, bestela, beste zerga-ikuskapenik ez duen enpresa bat bada, uneko zerga-ekitaldiaren ikuskapenaren arabera, kanpoko ikuskatzaile baten ziurtagiriarekin bat.

3.5 BERARIAZKO KENKARIA I+G+b FINANTZATZEAGATIK

3.5 / LABURPENA



	BIZKAIA	NAFARROA	ARABA	GIPUZKOA
Finantzatzailea	<ul style="list-style-type: none"> Funtsak jarriko ditu I+G+b proiektuak finantzatzeko. Ez du funtsen hartzailearekin loturarik izango. 			
Hartzailea	<ul style="list-style-type: none"> I+G+b proiektua gauzatuko du. 		<ul style="list-style-type: none"> Mikroenpresa edo ETE berritzailea. I+G+b proiektua gauzatuko du. 	<ul style="list-style-type: none"> Mikroenpresa edo ETE sortu berria. I+G+b proiektua gauzatuko du.
Mugak	<ul style="list-style-type: none"> Kuota likidoaren %35, gainerako kenkariekin batera. Gutxieneko tributazio-arauak. 	<ul style="list-style-type: none"> Kuota likidoaren %40, muga duten gainerako kenkariekin batera. Gutxieneko tributazio-arauak. 	<ul style="list-style-type: none"> Kuota likidoaren %35, gainerako kenkariekin batera. Gutxieneko tributazio-arauak. Ez finantzatzaileak, ez ikertzaileak ez dute jasoko, pizgarri honengatik, 200.000 €-tik gora 3 urtez. 	<ul style="list-style-type: none"> Kuota likidoaren %35, gainerako kenkariekin batera. Gutxieneko tributazio-arauak. Ez finantzatzaileak ez hartzaileak ezin dute pizgarri honengatik 1.000.000€ baino gehiago eskuratu 3 urtetan.
Errentagarritasun maximoa	%120	%125	%120	%120

3.5 BERARIAZKO KENKARIA I+G+b FINANTZATZEAGATIK



3.5 / ADIBIDEA

Enpresa batek interesa du startup baten I+Garen garapenean inbertitzeko eta sustatzeko. Enpresak 1.000.000 €-ko irabazia duela suposatuta, bere fiskalitatea hirugarrenen I+G finantzatzeko mekanismoaren bidez optimizatzeko aukera dago, eta 70.000 €-ko I+G proiektu bat finantzatu dezake. Horren truke, 84.000 €-ko kenkariak aplikatu ahal izango ditu Bizkaian eta Gipuzkoan. Horrek %20ko errentagarritasuna dakar. Hala ere, Nafarroan 87.500€tako kenkariak aplikatu ahal izango ditu, horrek %25eko errentagarritasuna suposatzen duelarik.

	Bizkaia eta Gipuzkoa	Nafarroa
Zerga-oinarria	1.000.000€	1.000.000€
Karga-tasa	%24	%24
Kuota osoa	240.000€	240.000€
Kenkari-muga, %	%35	%40
Kenkaria	84.000€	96.000€
Aplika daitekeen kenkari maximoa	84.000€	87.500€
Errentagarritasuna, %	%20	%37,14
Errentagarritasun-muga, %	%20	%25
Egindako finantzaketa	70.000€	70.000€
Lortutako errentagarritasuna	14.000€	17.500€

↓ ARAUDIA KONTSULTATU

Araba:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 13ko [37/2013 Foru Arauaren 64. artikulua](#) eta Foru Gobernuaren abenduaren 1eko Kontseiluaren [Zerga Premiazko 14/2020 Dekretu Arauemailearen 19. artikulua](#).

Bizkaia:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko [13/2013 Foru Arauaren 64 bis. artikulua](#) eta COVID-19rekin lotutako luzapenari eta beste premiazko neurri batzuei buruzko abenduaren 1eko [11/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 2.Bosgarren artikulua](#).

Gipuzkoa:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko [2/2014 Foru Arauaren 64 bis. artikulua](#) eta COVID-19ko bigarren olatuaren ondorioak arintzeko premiazko tributu-neurrii buruzko abenduaren 1eko [11/2020 Foru Dekretu-Arauaren 12. Eta 20. artikulua](#).

Nafarroa:

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko [26/2016 Foru Arauaren 62. artikulua](#).

04

AZKEN
GOMENDIOAK



Ikusi dugunez, neurri ugari eta garrantzitsuak daude; horiek, proiektu ekintzaileetan inbertitzeko pizgarrien ekosistema bat ahalbidetzen dute. Onura bakoitza egokia izango da inbertsio batekin lotura duten inguruabar zehatzetarako.

Betekizunak eta horien aplikazioa arretaz aztertu behar dira, ezin hobeto aprobetxatu ahal izateko, gida honek izan dezakeena baino sakontasun handiagorekin.

Gida honetako edukiak informatzeko baino ez dira. Crowdfunding Bizkaiak ez du bere gain hartzen bertan jasotako edukiren batetik erator daitekeen legezko erantzukizunik.

EKINTZAIETZAN ETA BERRIKUNTZAN INBERTITZEKO ZERGA PIZGARRIEN GIDA



Plaza Sagrado Corazón 5, 7ª planta
48011 Bilbao, Bizkaia.
(+34) 94 427 50 78
crowdfundingbizkaia@bizkaia.eus
www.crowdfundingbizkaia.com

CROWDFUNDING
Bizkaia

